

KONTROL MOZIOA

KORTXOENEAREN ERAISPENA DELA-ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16an Lurralde Planifikazioko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

60 urte inguru igaro dira txapak eta kortxo-manufakturak egiten zituen Ordoñez fabrikak jarduera eten zuenetik. 2010ean, Udalbatzak onartutako Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak "Au.01.3 Ordóñez" azpi-eremua mugatu zuen eta 1.812 m²(t) bizitegi eraikigarritasuna eman zion azpi-eremuari, etxebizitza librerako. Urte berean, Donostiako zenbait gazte eta elkartek hutsik eta erabilera gabe zegoen eraikin eta orubea okupatu zuten Kortxoenea izeneko proiektu sozio-kultural herrikoia bultzatzeko. 2012an, ordea, fabrikaren orubearen jabe egin ziren zenbait enpresek eraispen lizentzia eskatu zioten Udalari hirigintza-plana garatzeko asmoarekin. Bitartean Udal Gobernuak espazio alternatibo bat aurkitzen saiatu zen, baina urteak pasatu ondoren, PNV-PSEren gobernua iritsi zenean, 2015eko uztailaren 15an, eraispen lizentzia eman zitzaion sustatzaileari proiektu herritarraren etorkizuna bermatu gabe.

Hori dela-eta, irailean 4an, enpresa-eraikitzaileak eraispen saiakera egin zuen modu irregular batez, lizentzian jasotako baldintzak bete gabe. Udaleko EH Bilduko zinegotziek segurtasun neurriak betetzen ez zirela salatuta, Udalak eraispen lizentzia geldiarazi behar izan zuen. Tartean, Kortxoeneako ordezkariak Udal Gobernuarekin elkarriketa prozesu bat abiarazi zuten proiektu soziokultural herrikoia etorkizuna izan dezan, baina ustekabean, azaroaren 3an, gazteek salatutako kaleratze ilegal baten ondoren, Udal Gobernuak eraispen lizentziaren etetea altxatu zuen.

EH Bilduren ustez, kaleratzearen ondorengo eraispena irregularitasun askoz inguratuta gauzatu zen. Eraispeneren goiz berean bertatik hainbat zinegotziri eta alkateordeari salatu bezala, azaroaren 16ko batzordeetan irregularitasun horien inguruan interpelatu genuen gobernua, eta erantzunengatik jakin dugu Udal Gobernuak bazekiela aurretik noiz izango zen kaleratze ilegala eta, horrez gain, eraispen-lizentziaren altxatzea bera ere guztiz irregularra izan zela; izan ere, enpresak ez zuen etetea altxatzearen arrazoia izan zen hesitura jartzeko baimenik ere.

Dirudienez, uste hau ez da soilik EH Bildurena, azaroaren 18an, Donostiako lehen auzialdiko 2. zenbakiko Epaitegiak, Donostiako Udalak emandako eraispen lizentziaren etetea agindu baitzuen, badaezpadako neurri gisa.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Gertakari hauek guztiak oso larriak dira herri administrazio batek behar duen jarduteko zuzentasun printzipioaren ikuspuntutik; bai eremu legetik, bai administratibotik, baita politikotik ere.

Horiek horrela, eta azaroaren 16ko batzordeetan aipaturiko gertakariei buruz Udal Gobernuak nahiko xehetasun eman ez zuenez, haxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ebazten dituen hirigintza-lizentzi eta baimenen egikaritzeak ikuskatu eta legalitatea errespetatzea; eta baimenik gabekoak ez ahalbidetzea.

2.- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ez ditzala udal langileak nahastu ilegalak izan daitezkeen prozeduretan.

Donostian, 2015eko azaroaren 20an

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia